# EUSKALDUN MARTIRE, SARA-TAR NESKATILLA LARRALDEKO MADALENARI

*(Bigarren sariya irabazi duen moldaera)*

Gura neuskizuz zuri gloriak
Kantau, neskacha samurra,
Frantzian igo eban denboran
Gorriak Gobiernura;
Oiñperaturik ain gizon gaizto
Ifernutarren bildurra
Oraindik izan arren amabost
Urteko gazte biguna,
Pinet ta bere lagunak gaitik
Ez eutsulako ardura.

Alperrik entsun, lotu zinduzan
Piketearen buruak,
Esan gezurraz estalduteko
Berako zure kontuak;
Jakin etzedin zetara emon
Zenduzan ara pausuak,
Ta gichiago an zelan artu
Zenduzan sakramentuak,
Zeinzuek gatik pagau ez eyan
Ondoko zure lepuak.

Orduan baña fedez sututa
Ain modu miragarrian,
Erantzun zendun: «Naiz ill nayela
Ni illgo nabe Egi—an;
Jakin begie gura badabe
Agintariak Frantzian:
Zelan konfesau eta komulgau
Nazan Bera—ko errian
Jauna iraindu baño len zerren
Ill gura dodan grazian.»

¿Nor ez da arri egingo oso
Non nai zu ikusitean,
Mendi bat legez, gogor ta zutik
Katolikoen fedean;
Ikara baga, egia beti
Autortzen era batean,
Noiz soldaduen, zein jeneralen,
Bardin juezen aurrean,
Jakiña gaitik epai gaizto bat
Zeunkala zeure gañean?

Baña, Jesús da egia, eta
Zu zinan egi zalea,
Orreche gaitik; o! Madalena!
Kristo zan zure maitea,
Nogaz zenduan zuk bizi gura,
Nogaitik bere illtea.
Nogaz gezurra etzendulako
Charto nai geratutea,
Bere etsayak emon eutsuen
Kastiguz eriotzea.

¡O neskatilla Sara-ko gazte
Fedez bardiñik bagea!
Ill bear eta kantetan dozu
Birjiñ-Amaren Salbea,
Lirio guri ziñan denboran
Ikusgarrizko loria,
Gillotiniaz gorriak zuri
Ebagi arren samia,
Orain zeruan gozetan dozu
Martiaren koroia.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

# LARRALDEKO MADALENARI OROITZ BAT

*(Irugarren sariya irabazi duen moldaera)*

I

Nork eta zerk nau gaur erautziko
Detana senti indarrez esan!
Nork eta nola neri galazi
Barrendik irten nai duena joan!
Pisti chikiak ez du kantatzen
Erautzi gabe mendi maldetan?
Arrano aundia odoi-etatik
Dijoanian panparroi egan
Bere marruen otsa legorra
Ez du zabaltzen lurren gañean?

Bai! bai nik ere zabalduko det
Datorkiana nere barrendik,
Ez arranoen eta pistien
Deadar utsa bezelakorik!
Ifar-aizea ari danian
Arboltegien osto tartetik
Adiarazten ansi gozoak
Ta baratz-soroaren gañetik,
Ala nik ere senti detana
Kantatuko det ai! biotzetik!

II

O! Madalena Larraldekoa
Saratar dontsu eta eztia,
Iñoiz ezdana aztuko zure
Oroimen-doai chit naigarria!